

Ezpalak

JON TORNER


Imanol Urbietta musikagile eta musika irakasleak jaso du 2007ko Anton Abbadia saria. Musikako maisu guztiak izan zituen gogoan Urbietak Donostian Gipuzkoako Foru Aldundiko aretoan egindako ekitaldian, baita ezagutu dituen haur guztiak ere: "Haiek izan dira nire inspirazioaren iturri".

Azkena Rock jaialdia aurrerantzean ere Gasteizen egingo dela baieztatu du Last Tour International enpresak. Erakunde publikoek emango duten laguntzari esker lortuko dute jaialdia Gasteizen egitea: Udalak 270.000 euro jarriko ditu, Arabako Foru Aldundiak 165.000 euro eta Vital Kutxak 65.000 euro.

Ataramiñe kultur elkarteak hainbat euskal preso eta iheslariek idatzi dituzten poemez osatutako *Ataramiñe kantuz* diskoa kalerratu du. Hamaika poema horiekin eginiko abestiak 40 musikariek egin dituzte. Euren artean dira, besteak beste, Alex Sardui, Enrique Villareal *Drogas*, Francis Diez, Iñigo Muguruza eta Xabier Silveira bertsolaria. Diskoaz gain, euskal preso eta iheslariek idatzitako literatur lanak bildu dituen *Ataramiñe07* liburua ere plazaratu dute. Poemak, ipuinak, gutunak eta narrazioak aurki daitezke bertan.

Krash Comic: Emakume sortzaileak komikigintzan

Abenduaren 20an eta 21ean egingo da Gasteizen Krash Comic zikloaren edizio berria, *Emakume sortzaileak komikigintzan* gaia ardatz hartuta. Ohi bezala, mahai-inguruak Montehermoso aretoan egingo dira. Hilaren 20an Raquel Alzate, Sandra Uve, Viviane Alary eta Chantal Montelie autoreen bizipenak ezagutzeko parada izango da, eta 21ean Antonio Altarriba eta Chantal Montelie elkarrekin arituko dira solasean. Bestalde, Zuloa aretoan *Emakume sortzaileak komikigintzan* erakusketa izango da ikusgai abenduaren 20tik otsailaren 20ra bitartean; eta Aldabe kultur etxean Gazteentzako Komiki Lehiaketara aurkeztutako lanak erakutsiko dituzte. Egitarau osoa www.crashcomic.com webgunean kontsulta dezakezue.



Raquel Alzate eta Luis Duranen *Cruz del sur* (Astiberri) komikitik hartutako irudia.

Suitzako animaziozko film batek irabazi du Zinebiko sari nagusia

EUGENIA MUMENTHALER eta David Epiney zuzendari suitzarren *Le printemps de Sant Ponç* animaziozko filmak irabazi du Bilboko Zinebi zinema labur eta dokumentalaren jaialdiko sari nagusia. Dokumental onenaren saria Ruben Margalloren eta Toni Edoren *Familia 068* lanak jaso du; eta euskal zinemaren sailean Laida Lertxundiren *Footnotes to a house of love* dokumentala saritu dute. Honez gain, Pere Portabella zinemagileari eman diote Mikeldi saria, bere ibilbide profesionalean egindako lanagatik.

Joan Mari Torrealdaik *El Diario Vascon*: «Bi milaren bueltan dabil urtero titulu kopuru orokorra; berragitarapena %25 izaten da, eta itzulpena beste hainbeste (...) Bada alderdi negatibo bat: oso kontsumo partziala dugu (...) Tiradak behera doaz sistematikoki, baina ez hemen bakarrik. Gertatzen dena gurean hori arriskutsuagoa dela. Espainolez mila ale galdu eta euskaraz ehun, seguru asko gure kasuan askoz arriskutsuagoa da. Zergatik? Errentagarritasunaren atarian gaudelako (...) Espainiako Estatu mailan, titulu askok edizio bat bakarria dute, ateratzen dira, bi aste egiten dute dendan eta berriro argitaletxera itzultzen dira. Gure titulek gehiago irauten dute, denden militantismoagatik».

Pantxoa Bergara 'Xabaltx' musikariak *Berrian*: «Ez naiz eskema batzuetan sartzen! Baina ez da ikusminik programatzaileen partetik! Jendea alferra da! Eta irrati programatzaileek ere ez dute beraien lana egiten! Barkatu, baina horrela da! Bereziki Ipar Euskal Herriari begira! Ez baldin bada Xalbadorren gauza bat, Mattinena, ez baldin bada

Peio eta Pantxoa, ala Pierpol Berzaiz, ez dira interesatzen! Eta erdiak hilak dira! Zer lotsa, zer ahalke! Sorkuntza, gazteak laguntzea, bultzatzea... Ez du nehorik indar hori egiten! Iparraldean, urtero gorpu zaharrak errautsetatik kentzen dituzte, Olentzeroren kantua berriz mixatuz... Horrela da kultura bat biziarazten?».

Oscar Terol aktore eta umoregileak *Garan*: «Antzerkia gustatzen zait zeremonia moduko bat delako eta antzerkian bakarrik gertatzen diren egoerak eta emozioak bizitzen direlako. Erdi Aroko kutsu hori du, pertsona talde bat zure inguruan biltzen da zu eszenatoki gainean ikusteko. Nire ustez, gizateriaren ondare izendatu beharko lukete».

Ramon Tatiegi eta Esther Moyua *Hontza* liburu-dendako nagusiek *Irutxuloko Hitzan*: «Liburu-denda kate handiak dira oraingo joera, eta gero eta gutxiago dira denda independenteak. Gu korrontearen kontra gabiltza, baina oraindik badago zirrikitu bat guretzat».